

TEKNOLOGIA

AA sortzailearen erantzuna



DIANA FRANCO EGUREN

Orain dela urte asko Dr. Abuse chatbota ezagutu nuen, aplikazio horrekin ohartu nintzen ere pertsonok zeinen azkar kateatu gaitzkeen holako makinetara. Animalia sozialak izanda, harremana berezkoa eta beharrezkoa dugu, eta 'harremana' izenak dioen bezala, bestearengandik erantzun bat dakar beti. Erantzun bat jasotzea pizgarria da geure izatean. Nolabait, bete egiten gaitu. Pertsonon arteko harreman esanguratsuak sortzea ez da gauza erraza ordea, arrazoi askorengatik: onartua ez izatea, inguruan dituzunekin mundu-ikuskerak ez partekatzea... Behar duguna bilatzeko grina horrek bultzatuta, pertsonok denbora eta indar handia inbertitu ohi dugu harreman "esanguratsuak" bilatzen. Batzuetan, bidaiatu dugu interes berdineko sare eta komunitateetan parte hartuz; bestetan, liburuetan, pelikuletan, antzerkian, bideo-jokoetan, rol-jokoetan pertsonaia eta sortzaile ezberdinen munduan sartuz erantzunak bilatu ditugu.

Sare sozialak ere ideia horri tiraka sortu ziren, norberaren antzeko ikuspuntuak, zaletasunak, hizkuntza... zuten pertsonengandik erantzunak eta onarpena jasotzea abiapuntu.

Azkenaldian, adimen artifizialek pertsonen arteko zenbait harreman ordezkatzeko duten gaitasunaz pentsatzen aritu naiz. Aplikazio gordailu ezberdinetan kuxkuxeatzen ibili naiz. Badirudi, adimen artifizialaren erantzuna jasotzeko badirela aplikazio ugari, eta gai dira egoera oso ezberdinak sortzeko: komiki gustukoenaren pertsonaia bilakatu zaitezke eta istorio berriak sortu, lagunen arteko eztabaida bat simulatu, harreman afektibo bat izan... Erantzun egokiek bizitzak "arinduko" dizkiguten adimen sortzaileak izango dira, edota sorkuntza eredu berrien atarian jarriko gaituztenak? ●

NAZIOARTEA



Boliviako ezkerreko autosuntsiketaren bidean

AXIER LOPEZ

Jende askori ulertezina zaio Bolivian gertatzen ari dena. Eta ez da harritzekoa, nahiz eta munduan barrena ezkerreko zinez saiatzen ari diren ohiko tradizioari eusten: barne mailako borroka endemikoak ugaltzea.

Eskuinaren estatu kolpe batek eraman zuen boliviarrak demokratikoki hautatutako presidentea atzerrira, 2019ko azaroan. Kolpistek Gobernu Etxea okupatu zuten Biblia eskuan eta whipalak erre bitartean. Buenos Airesen erbesteratu zen Evo Morales eta handik izendatu zuen Luis Arce bere ordezkari gisa, hamaika urtez bere ekonomia ministro izan zena. Urtebete ingurura Moralesen eta Arcearen alderdia itzuli zen agintera, berriz ere herriarren gehiengoaren bultzadari esker (bozen %55arekin). Baina bi buruzagiren arteko urruntzea lehen minututik geratu zen argi. Presidente gisa eman zuen lehen hitzaldian, Arce ez zuen Morales aipatu ere egin, eta gobernutalde berriaren Evoren ministro ohiekin oso leku marginala eman zien.

Moralesek 2025erako presidentetzarako hautagaitza iragarri eta Arce-rekiko desadostasunak publiko egitearekin batera egin zen ofizial haustura. Orduetik sektore bakoitzak kongresu propioak egiten ditu eta Legebiltzarrean banatuta aritzen dira. Eta jakina, batak besteari leporatzen dio "eskuinari mesede egitea". Urriaren 27an, Evo Moralesek salatu zuen bera hiltzen saiatu zirela. Indar ofizialistek, aldiz, diote autoatentatua izan zela.

Egunotan Bolivia errepide blokeoz

josita dago. Ekintza horien bitartez Morales presidentegai gisa aurkeztu ahal izatea eskatzen ari dira, besteak beste. Moralesek bere aldetik gose greba abiatu zuen larunbatean. Gobernuak 66 protestariri "terrorismoa" leporatu die. Horrez gain, sexu-delitu bategatik epaiketa izango du Moralesek, eta orain arte ez du horri buruzko iritzirik eman nahi izan jendaurrean, bere irudia areago kaltetuta.

Hiru agintalditan bi liderrekin batera aritu den Álvaro García Linera presidenteorde ohia barne lehiatik urrun dago, eta bitartekari izaten saiatu da. Alferrik. "Borroka oso berekoi eta zekentzat" jo du botere dema.

MAS alderdia barnetik mutilatzen den bitartean, eskuindarrak pozarren daude espektakulari begira. Boliviako sektore neoliberalentzat MASen ez dago sektore on edo txarrik, guztiak dira borrokatu beharreko etsaia, eta haien barne-borroka oso albiste ona da, MASen amaiera iragartzen baitu.

Krisi ekonomikoak kolpeka jarraitzen du. Gasolina lortzeko ilara luzeak daude, eta langabeziarekin batera prezioek ere igotzen jarraitzen dute. Hala, 2025eko abuztuko hauteskundeetan Boliviako ezkerreko berritzaileak gero eta txikiagoak dira. Abya Yalako "ziklo aurrerakoia" deiturikoak eman zuen ikurrik handienetakoa –herriarren babes, egonkortasun ekonomiko eta sendotasun politiko aldetik– bere burua sunsitzeko bidean da, Bolsonaro edo Milei modukorik tartean izan gabe. ●